  - 3d) Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten erakundeen aurrekontuek, zeinek diru-sarreraren eta gastuen egoerak islatzen baitituzte.
- 4 HAUETATIK, ZEIN EZ DA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TRIBUTU PROPIOA?:**
- 4a) Uraren kanona.
  - 4b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.
  - 4c) Autonomia Erkidegoak zerbitzu publiko bat emateagatik edo subjektu pasiboa aipatu, hari eragin edo hari onurak sortzen dizkion jarduera bat egiteagatik sortutako kontribuzioak.
  - 4d) Autonomia Erkidegoko zerga propioak.
- 5 EUSKADIKO AURREKONTU-ARAUBIDEA ARAUTZEN DUEN ARAUAK DIOENEZ, ZER EGIN BEHAR DU JAURLARITZAK EKAINAREN LEHENENGO ASTEAN?:**
- 5a) Hurrengo urtealdirako aurrekontuak egiteko jarraibide teknikoak onartuko ditu.
  - 5b) Aurrekontuen aurreproiektua lantzen hasteko aginduko dio aurrekontuen eskumena duen sailari.
  - 5c) Diru-sarreraren aurreikuspena aztertuko du, Finantzen Euskal Kontseiluak onartu aurretik.
  - 5d) Hurrengo urtealdirako aurrekontuak egiteko jarraibide ekonomikoak onartuko ditu.
- 6 AURREKONTU-ALDAKETEN ALORREAN, KREDITUAK ERANSTEAGATIKO ERAGIKETEK...**
- 6a) Ez diote eragiten Aurrekontu Legearen arabera onartutako gastu-egoeren kopuru osoari.
  - 6b) Diru-sarreraren egoerei baino ez diete eragiten.
  - 6c) Hasierako gastu- eta sarrera-egoeren diru-zenbateko globala aldatzen dute.
  - 6d) Aurreko bat ere ez.

- 7 NOREN EGITEKOA DA SAIL BEREKO PROGRAMA BEREKO KAPITULU BEREKO KREDITUEN ARTEKO TRANSFERENTZIAK BAIMENTZEA?**
- 7a) Sailburuaren egitekoa.  
7b) Aurrekontuen eskumena duen sailburuaren egitekoa.  
7c) Ez du behar aldez aurretik organo esku-hartzailearen aldeko txostena, geroko kontrola pasa behar baitu.  
7d) Jaurlaritzaren egitekoa.
- 8 EUSKO JAURLARITZA, MODU ORDEZKATUAN, ESTATUAREKIN DUEN HITZARMEN BATEN BIDEZ ARI DA GAUZATZEN ABIADURA HANDIKO TRENAREN LANAK. ZEIN DA LAN HORIEK FINANTZATZEKO EUSKARRIA?**
- 8a) Inbertsio berezietarako programa bat.  
8b) Aurrekontu orokorretako gastuen eta sarrerren egoeretan agertu behar diren kudeaketa-kredituak.  
8c) Konpromiso-kredituen programa bat.  
8d) Hasieran onartutako gastuen eta sarrerren egoerak handitzea, kredituak gaitzeko eragiketa baten bitartez.
- 9 PRINTZIPIO HAUETATIK, ZEINETARA EZ DA EGOKITZEN AURREKONTUA BETEARAZTEKO ARAUDIA, GASTUEN ARLOAN, EUSKADIKO AURREKONTU ARAUBIDEARI BURUZKO 1/2011 LEGEGINTZA DEKRETUAREN 112. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA?**
- 9a) Etengabeko administrazio-kontrolaren printzipioa.  
9b) Eskumen-printzipioa.  
9c) Dokumentu bidezko justifikazioaren printzipioa.  
9d) Arduradunek urrats guztiak bete direla idatziz jasotzea eskatzen duen printzipioa.
- 10 HAU DA 1514/2007 ERREGE DEKRETUAK ONARTUTAKO KONTABILITATE PLAN OROKORRAREN EGITURA:**
- 10a) "Kontabilitate-printzipioak", "Aintzatespen- eta balioespen-arauak", "Urteko kontuak" eta "Kontabilitate-definizioak eta -harremanak".  
10b) "Kontzeptu-esparrua", "Aintzatespen- eta balioespen-arauak", "Urteko kontuak", "Kontu-taula" eta "Kontabilitate-definizioak eta -harremanak".  
10c) "Kontzeptu-esparrua", "Aintzatespen- eta balioespen-arauak", "Kontu-taula" eta "Kontabilitate-definizioak eta -harremanak".  
10d) "Kontzeptu-esparrua", "Aintzatespen- eta balioespen-arauak", "Urteko kontuak" eta "Kontu-taula".
- 11 1514/2007 ERREGE DEKRETUAK ONARTUTAKO KONTABILITATE PLAN OROKORRAREN ARABERA, HAUETATIK ZEIN EZ DA KONTABILITATE-PRINTZIPIO BAT?**
- 11a) Garrantzi erlatiboa.  
11b) Sarrerren eta gastuen korrelazioa.  
11c) Funtzionamenduan dagoen enpresa.  
11d) Ez konpentsatzea.

**12 ENPRESAK EKONOMIKOKI KONTROLATZEN DITUEN ONDASUNAK, ESKUBIDEAK ETA BESTELAKO BALIABIDEAK, LEHENAGOKO GERTAEREN ONDORIOZ SORTUAK ETA, ESPERO DENEZ, ENPRESARI ETORKIZUNEAN ETEKIN EKONOMIKOAK EMANGO DIZKIOTENAK, ZER DIRA?**

- 12a) Pasiboak.
- 12b) Aktiboak.
- 12c) Ondare garbia.
- 12d) Gastuak.

**13 1514/2007 ERREGE DEKRETUAK ONARTUTAKO KONTABILITATE PLAN OROKORREKO AINTZATESPEN- ETA BALIOESPEN-ARAUEN ARABERA, ENPRESAK HONAKO HAUEK HARTUKO DITU HORNIDURATZAT:**

- 13a) Kontabilitate-ekitaldia hasten denean finkatutako zenbateko jakin bat gainditzen duen balioa duten enpresaren aktiboak.
- 13b) Ekitaldian besterentzea aurreikusten diren enpresaren aktiboak.
- 13c) Diru-zenbateko zehatzik ez duten edo noiz kitatuko diren zehazturik ez duten pasiboak.
- 13d) Aurreko bat ere ez.

**14 EKITALDIAN APLIKATU BEHARREKO PERIODIFIKAZIO KONTABLEA DEFINIZIO HAUETATIK ERATORTZEN DA:**

- 14a) Sortzapen-printzipioaren definizio hau: "*Transakzioen edo egitate ekonomikoen ondorioak, gertatzen diren unean erregistratuko dira eta urteko kontuek azaltzen duten ekitaldiari egotziko zaizkio urte horri dagozkion gastuak eta sarrerak, noiz ordaintzen edo kobratzen diren kontuan izan gabe.*"
- 14b) Zuhertasun-printzipioaren definizio hau: "*Ziurgabetasunaren aurrean, zuhurra izan behar da estimazioak eta balioespenak egitean.*"
- 14c) Uniformetasun-printzipioaren definizio hau: "*Aukera bat baino gehiago dagoenean eta irizpide bat hautatzen denean, denboran zehar mantendu egin beharko da eta uniformetasunez aplikatu, elkarren antzekoak diren transakzioetan eta bestelako gertaeretan, irizpidea hautatzeko izan diren arrazoiak edo egoera aldatzen ez diren artean.*"
- 14d) Sortzapen-printzipioaren definizio hau: "*Transakzioen edo egitate ekonomikoen ondorioak, gertatzen diren unean erregistratuko dira eta urteko kontuek azaltzen duten ekitaldiari egotziko zaizkio urte horri dagozkion kobrantzak eta ordainketak, noiz ordaintzen edo kobratzen diren kontuan izan gabe.*"

**15 KONTABILITATE PLAN OROKORRA ONARTZEN DUEN 1514/2007 ERREGE DEKRETUAREN 18. AINTZATESPEN- ETA BALIOESPEN-ARAUAREN ARABERA, BAI EZTAPEN HAUETATIK ZEIN DA OKERRA?**

- 15a) Itzuli behar ez diren diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak, hasieran, oro har, zuzenean ondare garbira egotzitako sarrera gisa kontabilizatuko dira, eta galdu-irabazien kontuan aintzatetsiko dira sarrera gisa, oinarri sistematiko eta arrazional bati jarraituz diru-laguntza, dohaintza edo legatuari lotutako gastuekin korrelazionatuta.
- 15b) Bazkideek edo jabeek emandako itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak ez dira sarrerak izango, eta zuzenean fondo propioetan erregistratu beharko dira, diru-laguntza, dohaintza eta legatu mota edozein izanda ere.
- 15c) Diru-laguntza, dohaintza edo legatua hartzen dutenak sektore publikoko enpresak direnean eta, erakunde publiko nagusiak emanda, interes publiko edo orokorreko jarduerak finantzatzeko badira, laguntza publiko horiek, hasieran eta oro har, zuzenean ondare garbira egotzitako sarrera gisa kontabilizatuko dira, eta oinarri sistematiko eta arrazional bati jarraituz diru-laguntza, dohaintza edo legatuari lotutako gastuekin korrelazionatuta aintzatetsiko dira.
- 15d) Guztiak dira okerrak.

**16 HAU EK DIRA URTEKO KONTUAK OSATZEN DITUZTEN DOKUMENTUAK:**

- 16a) Balantzea, galera-irabazien kontua, diru-fluxuen egoera-orria, memoria eta kudeaketa-txostena.
- 16b) Balantzea, galera-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta memoria.
- 16c) Balantzea, galera-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, diru-fluxuen egoera-orria eta memoria.
- 16d) Balantzea, galera-irabazien kontua eta memoria.

**17 DIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIAN, NON KOKATU BEHAR DA "DIBIDENDUEN KOBRANTZAK" KONTZEPTUA?**

- 17a) Ustiapen-jardueretako diru-fluxuetan.
- 17b) Inbertsio-jardueretako diru-fluxuetan.
- 17c) Finantza-jardueretako diru-fluxuetan.
- 17d) b) eta c)

**18 URTEKO KONTU LABURTUAK:**

- 18a) Balantze laburtua formulatu daitekeenean, halaber formulatuko da galera-irabazien kontu laburtua.
- 18b) Balantze laburtua, ondare-aldaketen egoera-orri laburtua eta memoria laburtua formulatu daitezkeenean, halaber formulatuko da diru-fluxuen egoera-orri laburtua.
- 18c) Balantze laburtua, ondare-aldaketen egoera-orri laburtua eta memoria laburtua formulatu daitezkeenean, diru-fluxuen egoera-orria ez da beharrezkoa izango.
- 18d) Ezin dira formalizatu urteko kontu laburtuak.

**19 1514/2007 ERREGE DEKRETUAK ONARTUTAKO KONTABILITATE PLAN OROKORRAREN ARABERA, ZEIN DA ENPRESARIOAK EDO ADMINISTRATZAILEEK URTEKO KONTUAK FORMULATZEKO DUTEN EPEA?**

- 19a) Sei hilabete, ekitaldia ixten denetik kontatuta.
- 19b) Hilabete bat, ekitaldia ixten denetik kontatuta.
- 19c) Hiru hilabete, ekitaldia ixten denetik kontatuta.
- 19d) Hamabi hilabete, ekitaldia ixten denetik kontatuta.

**20 NOLA KALKULATZEN DA MANIOBRA-FUNTSA?**

- 20a) Aktibo korrontearen eta pasibo korrontearen arteko diferentzia.
- 20b) Baliabide iraunkorren eta aktibo ez-korrontearen arteko diferentzia.
- 20c) Biak dira egia.
- 20d) Biak dira gezurra.

**21 INBERTSIO BATEN PALANKA EFEKTU FINANTZARIOA POSITIBOA IZAN DADIN, BEHARREZKOA DA...**

- 21a) Errentagarritasun ekonomikoa edo inbertsioaren errentagarritasuna izatea maileguen bidez lortutako funtsengatik ordaintzen den interes-tasa baino txikiagoa
- 21b) Errentagarritasun ekonomikoa edo inbertsioaren errentagarritasuna eta maileguen bidez lortutako funtsengatik ordaintzen den interes-tasa berdinak izatea.
- 21c) Errentagarritasun ekonomikoa edo inbertsioaren errentagarritasuna izatea maileguen bidez lortutako funtsengatik ordaintzen den interes-tasa baino handiagoa.
- 21d) Aurreko hiru baieztapen horiek gezurra dira.



**22 ERABATEKO KAUDIMEN RATIOAK ZERA NEURTZEN DU: ENPRESAK DITUEN BETEBEHARREI ERANTZUTEN GUZTIRA DUEN GAITASUNA. RATIO HORI UNITATETIK BEHERAKO BADA, HORREK ESAN NAHI DU:**

- 22a) Enpresa egoera ezin egonkorragoan dagoela.
- 22b) Enpresa oreka-egoeran dagoela.
- 22c) Enpresa kaudimengabezia-egoeran dagoela.
- 22d) Aurreko hiru baieztapen horiek gezurra dira.

**23 BAI EZTAPEN HAUETATIK, ZEIN DA OKERRA?**

- 23a) Kontu-auditorearen iritzi teknikoak konfiantza handiagoa ematen dio urteko kontuen fidagarritasunari.
- 23b) Auditoretza-txostenen erabiltzaileak ez du zertan pentsatu kontu-auditorearen iritzi teknikoak entitatearen geroko bideragarritasunaren bermea denik.
- 23c) Auditoretza-txostenen erabiltzaileak pentsatu behar du kontu-auditorearen iritzi teknikoak entitatearen geroko bideragarritasunaren bermea dela.
- 23d) Kontu-auditore independentearen erantzukizuna da entitate baten urteko kontuei buruz bere iritzia osatzea eta adieraztea.

**24 BAI EZTAPEN HAUETATIK, ZEIN DA ZUZENA?**

- 24a) Kontu-auditore independenteek betetze-probak egin behar dituzte, nahitaez, auditoretza-lanak egiten dituzten bitartean, barne-kontrolerako sistemak ebaluatzeko.
- 24b) Kontu-auditore independenteek ezingo dituzte betetze-probak egin, beren atariko lanean.
- 24c) Atariko fasean egindako betetze-probak nahitaez zabaldu behar dira ekitaldia amaitzen den arte.
- 24d) Kontu-auditore independenteek betetze-probak egin ahalko dituzte atariko lana egiten duten bitartean, eta, hala badagokio, proba horiek denbora osoan aplikatzea ez da zertan beharrezkoa izan.

**25 KONTU-AUDITOREAK AUDITORETZAK EGITEKO ERABILTZEN DITUEN PROZEDUREN ARTEAN PROBA SUSTANTIBOAK DAUDE. LANA EXEKUTATZEARI BURUZKO ARAU TEKNIKOEK DIOTENEZ, NOIZ EGINGO DIRA PROBA SUSTANTIBO GEHIAGO URTEKO KONTUEN OSAGAIEI BURUZ?**

- 25a) Barne-kontrolerako betetze-probek erakusten duten konfiantza zenbat eta handiagoa izan.
- 25b) Barne-kontrolerako betetze-probek erakusten duten konfiantza zenbat eta txikiagoa izan.
- 25c) Egin beharreko proba sustantiboen kopuruak ez du zerikusirik barne-kontrolerako probek erakusten duten konfiantza-mailarekin.
- 25d) Proba sustantiboak ez dira auditoretza-lanen prozeduretan sartzen.

**26 1.000 EURO INBERTITZEN BADIRA 21 HILABETETAN, HIRU HILEKO % 2KO INTERES-TASAREKIN, KAPITALIZAZIO SINPLEAREN ESKEMA BATEAN, ZER INTERES LORTUKO DA EPEALDIAREN BUKAERAN?**

- 26a) 120
- 26b) 140
- 26c) 160
- 26d) 100

**27 AUKERA EZAZU KAPITALIZAZIO KONPOSATUAREN SISTEMA BATEAN ETA n EPEALDIETAN AZKEN KAPITALA DEFINITZEN DUEN FORMULA, NON**

**$C_o$  = HASIERAKO KAPITALA,  $C_n$  = n EPEALDIKO KAPITALA  $i$  = INTERES-TASA  
ETA INTERES-TASAK ETA DENBORAK EPEALDI BERARI EGITEN BAITIOTE  
ERREFERENTZIA:**

27a)  $C_n = C_o (1 + i)^{-n}$

27b)  $C_o = C_n (1 + i)^n$

27c)  $C_n = C_o (1 + i)^n$

27d)  $C_n = C_o (1 - i)^n$

**28 ZEIN DIRA KONTU KORRONTEETAN INTERESAK LIKIDATZEARI BURUZKO HAMBURGEKO METODOAREN EZAUGARRIAK?**

28a) Kontu korrontean agertzen diren eragiketen egoerari erreparatzen dio, zeren eta aintzat hartzen baitu kapital, hartzekodun edo zordun bakoitzak interesak sorrarazten dituela epemugaren egunetik kontua ixten den arte.

28b) Kapital-saldoen gainean dihardu, eta egunak epemugatik epemugara kontatzen dira.

28c) Prozedura horretan, egunak kontatzen dira epemuga bakoitzetik "aro" izeneko datara arte.

28d) Ez dago izen hori duen metodorik.

**29 NOIZ DA ERRENTA BAT KONSTANTEA, IRAUNKORRA ETA AURREZ ORDAINTZEKOA?**

29a) Termino berdinen kopuru mugatu bat duenean, zeinen epemugen erreferentzia, lehenengo epealditik aurrera, bakoitzaren hasiera baita.

29b) Termino ezberdinen kopuru mugagabe bat duenean, zeinen epemugen erreferentzia, lehenengo epealditik aurrera, bakoitzaren hasiera baita.

29c) Termino berdinen kopuru mugagabe bat duenean, zeinen epemugen erreferentzia, lehenengo epealditik aurrera, bakoitzaren bukaera baita.

29d) Termino berdinen kopuru mugagabe bat duenean, zeinen epemugen erreferentzia, lehenengo epealditik aurrera, bakoitzaren hasiera baita.

**30 EMAN EZAZU 100 EUROREN ERRENTA KONSTANTE, IRAUNKOR ETA POSTORDAINGARRI BATEN BALIOA, % 10EKO INTERES-TASAN.**

30a) 200 €

30b) 10.000 €

30c) 1.000 €

30d) 110 €

**31 ZEIN DIRA MAILEGUAK AMORTIZATZEKO ALEMANIAKO SISTEMAREN EZAUGARRIAK?**

31a) Guztizko kuota beheranzko bat, barnean hartzen dituen aldizkako amortizazio-kuota konstante bat eta beheranzko interesak (zenbateko nagusiaren saldo bizia txikitzearen ondorioz).

31b) Guztizko kuota konstante bat, barnean hartzen dituen goranzko amortizazio-kuota bat eta beheranzko interesak.

31c) Guztizko kuota beheranzko bat, barnean hartzen dituen beheranzko amortizazio-kuota bat eta beheranzko interesak (zenbateko nagusiaren saldo bizia txikitzearen ondorioz).

31d) Ez dago horrelako amortizazio-sistemarik.

**32 1.000 EUROKO MAILEGO BAT JASO DUGU, 10 URTEKO EPEAN, % 5EKO INTERES-TIPOAN ETA AMORTIZAZIO-SISTEMA LINEALAREKIN (ZENBATEKO NAGUSIAREN KUOTA KONSTANTEA). INTERESEN ETA AMORTIZAZIOAREN ORDAINKETA URTEKO KUOTA BAKAR BATEAN EGITEN DA, EPEAK AMAITUTAKOAN. AUKERATU LAUGARREN URTEKOARI DAGOKION KUOTAREN ZENBATEKOA.**

- 32a) 145
- 32b) 140
- 32c) 135
- 32d) 125

**33 INTERES-TIPOETAN, FINANTZA MERKATUAN GEHIEN ERABILTZEN DEN ERREFERENTZIA-TIPOETAKO BAT EURIBORRA DA, URTEBETEKO EPEAN. INTERES-TIPO HORI HONELA LORTZEN DA:**

- 33a) BBVA eta Banco Santander entitateek, egunero, goizeko hamaiketan, urtebete epean eta eurotan egitekoak diren gordailu-eragiketei begira kotizatzen dituzten tipoen batez besteko aritmetikoa da. Espainiako Bankuak argitaratzen du.
- 33b) Katalogatuta dauden banku jakin batzuek, egunero, goizeko hamaiketan, urtebete epean eta eurotan egitekoak diren gordailu-eragiketei begira kotizatzen dituzten tipoen batez besteko aritmetikoa da. Europako Bankuen Federazioak argitaratzen du.
- 33c) Europako Banku Zentralak, egunero, urtebete epean eta eurotan egitekoak diren gordailu-eragiketei begira kalkulatu eta argitaratzen duen datua da.
- 33d) Aurreko bat ere ez.

**34 KAPITALEN MERKATUAN DAUDEN ERRENTA FINKOKO BALIOEN MODALITATE OHIKOENETAKO BAT ZOR PUBLIKOAREN JAULKIPENEN BIDEZ EGITEN DENA DA. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EPE LUZERAKO (BOST URTETIK GORA) JAULKITZEN DITUZTENAK "OBLIGAZIOAK" DEITZEN DIRA, ETA HAUXE DA ZENBATEKO NAGUSIAREN EPEMUGAK ETA INTERESEN ORDAINKETAK EGITEKO ESKEMA OHIKOENA:**

- 34a) Kupoi aldakorra sortzen duten tituluak dira, urteko likidazioaz eta zenbateko nagusiaren amortizazio osoa epemugan egiten dutenak.
- 34b) Kupoi konstantea sortzen duten tituluak dira, urteko likidazioaz eta amortizazio lineala dutenak jaulkipenaren bizialdi osoan.
- 34c) Kupoi konstantea sortzen duten tituluak dira, urteko likidazioaz eta zenbateko nagusiaren amortizazio osoa epemugan egiten dutenak.
- 34d) Kupoi aldakorra sortzen duten tituluak dira, sei hileko likidazioaz eta zenbateko nagusiaren amortizazio osoa epemugan egiten dutenak.

**35 ZER ADIERAZTEN DU LEHENTASUNEZKO HARPIDETZA ESKUBIDEAREN BALORE TEORIKOAK?**

- 35a) Akzio berrien jaulkipen-prezioa, kapital-gehikuntza baten ondoren.
- 35b) Akzio zaharrek duten balore-galera, kapital-gehikuntza baten ondoren.
- 35c) Akzioaren prezioa, kapital-gehikuntzaren ondoren.
- 35d) Akzioaren prezioa, kapital-gehikuntzaren aurretik.

**36 ENPRESA BATEN KAPITAL SOZIALA...**

- 36a) Finantziario-iturri propioa da.
- 36b) Mantentze-lanetarako autofinantzaketa-iturri bat da.
- 36c) Aberasteko autofinantzaketa-iturri bat da.
- 36d) Mantentze-lanetarako eta aberasteko autofinantzaketa-iturri bat da.



### 37 JARDUERA HAUETATIK, ZEINEK EZ DU HANDITZEN ENPRESA BATEN LIKIDEZIA?

- 37a) Erosketa kreditu bidez egitea, eskura ordaindu beharrean.
- 37b) Hornitzaileei egin beharreko ordainketak atzeratzea.
- 37c) Bezeroei kobratu beharreko zenbatekoak atzeratzea.
- 37d) Finantza-entitateei merkataritzako efektuak deskontatzea.

### 38 AUKERATU ERANTZUN ZUZENA. ENPRESA BATEK, CONFIRMING BIDEZ, ...

- 38a) Bere fakturen aurreordainketa lortzen du, eta komisio baten truke fakturen kobrantza lagatzen du.
- 38b) Bere fakturen ordainketa gestore bati lagatzen dio, eta gestore horrek, prezio baten truke eta ordainketaren finantzaketa posible baten truke, konpromisoa hartzen du hartzekodunei ordaintzeko edo haiei ordainketa aurreratzeko.
- 38c) Finantza-entitate batek enpresaren kobrantza-eskubide batzuen kobrantza aurreratzeko du, bezeroen aurrean, interes-tasa jakin batean.
- 38d) Horietatik bat ere ez.

### 39 BETEBEHAR HAUETATIK, ZEIN EZ DU NAHITAEZ EDUKI BEHAR KANBIO-LETRA BATEK?:

- 39a) Ordaindu behar duen pertsonaren izena ("igorria" deitzen da).
- 39b) Kanbio-letraren ordainketa abal bidez bermatuta dagoen ala ez.
- 39c) "Kanbio-letra" izendapena, tituluan bertan txertatua, dokumentua idazteko erabili den hizkuntzan idatzia.
- 39d) Letra ematen duen pertsonaren izenpea ("igorlea" deitzen da).

### 40 ZER DA DOKUMENTU-KREDITUA?

- 40a) Kanpo-merkataritzaren alorrean enpresa baten eta banku baten arteko harremanak arautuko dituzten baldintzak jasotzen dituen kontratua da.
- 40b) Esportatzaileak bere bankuari ematen dion agindu bat da, bankuak berma dezan erosketa egiten dela merkataritzen nazioarteko trafikorako aurrez finkatutako dibisen kanbio-tasa jakin batean.
- 40c) Inportatzaileak bere bankuari ematen dion agindu bat da, operazioa ordaindu dezan esportatzailearen bankuak salgaiak hitzartutako eran bidali direla segurtatzen duen dokumentazioa aurkezten duen unean.
- 40d) Horietatik bat ere ez.

### 41 PAY BACK-A, INBERTSIOAK HAUTATZEKO METODO GISA, ...

- 41a) Inbertsioak ebaluatzeko metodo estatiko bat da, eta honela definitzen da: inbertsio baten hasierako kapitala berreskuratzeko behar den denbora-tartea.
- 41b) Inbertsioak ebaluatzeko metodo dinamiko bat da, eta honela definitzen da: inbertsio baten hasierako kapitala berreskuratzeko behar den denbora-tartea.
- 41c) Inbertsioak baloratzeko metodo bat da, kontuan hartzen duena diruak denboran zehar duen balio aldakorra.
- 41d) Aurreko hiru baieztapen horiek gezurra dira.

**42 BAI EZTAPEN HAUETATIK ZEIN DA ZUZENA?:**

- 42a) Balio eguneratu garbia (BEGb) inbertsioak baloratzeko metodo bat da, honela defini daitekeena: inbertsio batek sortutako kobrantzen eta ordainketen balio eguneratuen arteko diferentzia.
- 42b) Balio eguneratu garbia (BEGb) inbertsioak baloratzeko metodo bat da, honela defini daitekeena: inbertsio batek sortutako sarreraren eta gastuen balio eguneratuen arteko diferentzia.
- 42c) Balio eguneratu garbia (BEGb) inbertsioak baloratzeko metodo bat da, honela defini daitekeena: inbertsio batek sortutako sarreraren eta ordainketen balio eguneratuen arteko diferentzia.
- 42d) Balio eguneratu garbia (BEGb) inbertsioak baloratzeko metodo bat da, honela defini daitekeena: inbertsio batek sortutako kobrantzen eta gastuen balio eguneratuen arteko diferentzia.

**43 GAINERAKO GUZTIA BERDIN GERATZEN BADA, ZER GERTATZEN DA PROIEKTU BATEN BEGb-AREKIN, ENPRESAK PLAN AZKARRAGO BAT AUKERATZEN BADU IBILGETUA AMORTIZATZEKO?**

- 43a) Handitu egiten da.
- 43b) Txikitu egiten da.
- 43c) Handitu daiteke edo txikitu daiteke.
- 43d) Konstante jarraitzen du.

**44 ZER GERTATZEN DA PROIEKTU BATEN BARNE-ERRENDIMENDUAREN TASA (BET) ETA KAPITALAREN AUKERA-KOSTUA BERDINAK BADIRA?**

- 44a) BEGb-a positiboa izango da.
- 44b) Proiektuak ez du sarrera-fluxurik diruzaintzan.
- 44c) BEGb-a zero izango da.
- 44d) Proiektua baztertu egin beharko litzateke.

**45 ASEGURU-ENTITATE BAT IZAN DAITEKE...**

- 45a) Sozietate anonimoa.
- 45b) Sozietate kolektiboa.
- 45c) Erantzukizun zibil mugatuko sozietatea.
- 45d) Sozietate komandataria.

**46 ZER EPE DU ASEGURATZAILEAK ARRISKUA AREAGOTZEAREN GAINEKO JAKINARAZPEN BATI ERANTZUTEKO, KONTRATU-ALDAKETA BAT PROPOSATUZ?**

- 46a) Bi hilabete.
- 46b) 15 egun.
- 46c) Hilabete bat (graziazko hilabetea).
- 46d) Sei hilabete.

**47 HORNIDURA TEKNIKOAK...**

- 47a) Aseguru-entitateek hobeto funtzionatzeko duten ahala dira.
- 47b) Aseguru-en Zuzendaritza Orokorren ahala dira. Zuzendaritza horrek erabakiko du zein entitatek behar dituzten hornidura teknikoak.
- 47c) Bakarrik atzerriko entitateek eduki behar dituzte.
- 47d) Nahitaezkoak dira.

**48 4/2005 LEGEA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKOA. ORO HAR, PERTSONA BAT SEXUAREN ZIOZ EDO SEXUAREKIN ZUZENEAN LOTURIK DAUDEN INGURUABARRAK DIRELA-ETA -HAURDUN EGONDA EDO AMA IZANDA, ESATERAKO- BESTE PERTSONA BAT BAINO MODU TXARRAGOAN TRATATZEN DENEAN...**

- 48a) zuzeneko bereizkeria izango da.
- 48b) zeharkako bereizkeria izango da.
- 48c) ez da bereizkeria kontsideratuko.
- 48d) Bakar-bakarrik kontsideratuko da bereizkeria jokabide hori delitu gisa tipifikaturik badago.

**49 4/2005 LEGEA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKOA. LEGE HONEN ONDOREETARAKO, ZENBATEKO ORDEZKARITZA JOKO DA OREKATUTZAT PERTSONA ANITZEKO ADMINISTRAZIO-ORGANOETAN?**

- 49a) Sexu biek, gutxienez, %30eko ordezkariak dutenean.
- 49b) Sexu biek, gutxienez, %40ko ordezkariak dutenean.
- 49c) Sexu biek, gutxienez, %35eko ordezkariak dutenean.
- 49d) Sexu biek, gutxienez, %45eko ordezkariak dutenean.

**50 IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO GAIAK. ADIERAZI ZEIN EZ DEN ZUZENA: DATU PERTSONALAK ESKATZEN ZAIZKIEN INTERESDUNEI, ZEREN INGURUAN EMAN BEHARKO ZAIE INORMAZIO ZEHATZA ETA ZALANTZARIK GABEA AURRETIAZ ETA ESANBIDEZ?**

- 50a) Tratamendu-eragilearen identitatea eta helbidea edo, hala denean, horren ordezkariarenak
- 50b) Izaera pertsonaleko datu horiek biltzeko xedea.
- 50c) Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak egikaritzea.
- 50d) Izaera pertsonaleko datuak tratatzen direla edo fitxategi batean biltzen direla.

**ORDEZKO GALDERAK**

**51 GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUAK ATAL HAUEK DITU:**

- 51a) Ustiapen-emaitza eta ekitaldiaren emaitza.
- 51b) Finantza-emaitza, zerga aurreko emaitza eta ekitaldiaren emaitza.
- 51c) Ustiapen-emaitza, finantza-emaitza, zerga aurreko emaitza eta ekitaldiaren emaitza.
- 51d) Ustiapen-emaitza, zerga aurreko emaitza eta ekitaldiaren emaitza.

**52 HAUETATIK, ZEIN DA BARNE BALIABIDEEN ITURRIA?**

- 52a) Autofinantzaketa.
- 52b) Obligazioen jaulkipena.
- 52c) Bankuen maileguak.
- 52d) Autofinantzaketa eta obligazioen jaulkipena.

**53 NOLAKO BALIABIDE FINANTZARIOAK DIRA ERRESERBAK?**

- 53a) Kanpokoak eta propioak.
- 53b) Barnekoak eta beste batzuenak.
- 53c) Barnekoak eta propioak.
- 53d) Kanpokoak eta beste batzuenak.

**54 NOREN EGITEKOA DA EGIAZTATZEA EA ASEGURU-JARDUERARI EKITEKO ETA HORRETAN ARITZEKO BALDINTZAK BETETZEN DIREN ALA EZ?**

- 54a) Foru Aldundiarena.
- 54b) Aseguru-entitatearen akziodunen batzarrarena.
- 54c) Administrazio Kontseiluko lehendakariarena.
- 54d) Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiarena.

**55 IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO GAIAK. IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEKO 15/1999 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, ZEIN IZEN DU TRATAMENDUAREN OBJEKU DIREN DATUEN TITULARTASUNA DUEN PERTSONA FISIKOA?**

- 55a) Tratamenduaren arduraduna.
- 55b) Fitxategiaren arduraduna.
- 55c) Ukitua edo interesduna.
- 55d) Tratamendu-eragilea.